


SARE HEZKUNTZA GELAN

2016-2018



**ARANTZAZUKO AMA
IKASTOLA**

A) Ikastetxearen heziketa-proiektuan duen inplikazioa eta presentzia.

IKTek gurean, garrantzi handia izan dute beti. Arantzazuko ama ikastola ikastetxeak IKT **ikastetxeetako teknologia heldutasuneko eredia** proiektuan parte-hartu du urte hauetan eta 2013-14 ikasturtean erdi maila lortu ondoren, goi maila lortzeko prozesuan kokatzen gara une honetan; 2015-16 ikasturtean aurkeztuko da ikastetxea goi maila lortu edo erdi maila berrezteko.

Baina honekin batera, hurrengo ikasturteetara ikastetxeak beste pausu bat eman nahi du. Hezkuntza Proiektuan jasota dagoen modura, **"proiektu honen xede nagusia horrelako ikasleak eta hiritarrak garatzen laguntzea izango da, hau da, ikasle autonomoak, beren ikaste prozesuaren jabe, auto-ebaluatzeko gai, taldean lanean dakitenak, eta eraikitzaileak, eskolako Hezkuntza Proiektuan jasota ditugun balio eta asmoak bereak egingo dituztenak."**

Gaitasun horiek garatzeko, ikasleari protagonismoa ematen dioten metodologikoetan oinarritutako dugu gure lana. helburu orokor hori gauzatzeko datozen urteetan, beharrezkoak izango diren aldaketa metodologikoekin aurre egiteko egin beharrekotan finkatuko dugu irakasleon prestakuntza, eguneroko praktikan heltzeko.

- Gure ikasleak inguratzen duen gaurkotasuna
- Lan kooperatiboa
- Ebaluazioa

Eta hor kokatzen dugu Sare Hezkuntza proiektua. Datozen ikasturtetan, orain arteko lanari jarraipena emanez aldaketa metodologiko eta pedagogikoa bultzatu nahi badugu ikastetxean , teknologia berriek eskaintzen dizkiguten aukerak baliatu beharko ditugu. Uste dugu proiektu honek orain arte IKT Heldutasun Teknologikorako Maila proiektuan egindako lanari jarraipena emango diola eta eman beharreko aldaketa sakonetan lagunduko duela, metodologian gehiago zentratuz.

Ohiko ikasgelak ikasgela digitala bilakatzea, Ikasleak IKT-dun gaitasunetan trebatzea, heziketa kalitatea hobetzea gure ikasleei bizitzea egokitu zaien garaietara eskola

egokitzea ditu besteak beste helburu, eta horretarako ikasle eta irakasleen derrigorrezko etengabeko prestakuntza ezinbestekoa izango da.

B) Hezkuntza digitalaren metodologia pedagogikoak, ikastetxe, ikasgela eta ikasle mailan

Denok aitortu behar dugu, gizartea erabat aldatu dela, bizitza erritmoa, lana, harremanak, komunikazioa, etab. amaigabearen aldaketek gizartearen moldaketa sakona suposatu dute.

Teknologia berriak erabat garatuak eta hedatuak daude aipatutako gizarte berri honetan eta hauen berri izatea zein hauek erabiltzen jakitea gizartearekin batera gizarte kide bezala garatu ahal izateko behar beharrezko gaitasunetan bihurtu dira.

Horregatik, eta gaur egungo eskolak horrenbeste defendatzen duen ikaslearen autonomia bermatzeko, hezkuntza digitalaren garrantzia azpimarratzea ezinbestekoa da. Honi esker, ikaslea, besteak beste, esperientzien bidez ikasi, kooperazioa landu, hausnarketa garatu eta kritikotasuna lortzen baititu.

Horretarako, ikasleak, eskola eremuan behintzat, irakaslearen gidaritza behar du, eta ez orain dela gutxi arte erabili den transmisio hutsa. Laguntzari esker, bera bakarrik gaur egun eskura dituen baliabide anitzak erabiltzen ikasiko du, hauek eskaintzen dizkioten abantailak bere lanera egokituz. Gainera, gaur egun erabiltzen diren komunikazio bideak hausnartzeko gai izango da, eta noski, online lan egiten ohituko da.

Ikasleak, teknologia, baliabide edota tresna bakoitzaren erabilpen egokia ezagutu behar ditu, hauen atzetik dauden lege eta arauak eta nola ez, bere eskubideak ikasiz. Autonomoa izatea kritikoa izaten ikasten duen bitartean lortu behar du. Hori da hezkuntza digitalaren helburu nagusia, eta benetan eraginkorra izateko, helduei zabaldu beharreko helburua da, irakasle eta gurasoei, haurren eredu baikara. Beraz, informazioa bilatu, irakurri, hausnartu galbahetu eta nola ez, eskura dituzuen tresna zein aplikazioak beldurrik gabe probatu, erabili eta hezkuntza digitala zabaldu.

C) Irakasleen prestakuntza teknologiko eta pedagogikorako jardueren plangintza

| EKINTZA | 2016-2017 | | 2017-2018 | |
|--|--|-------------------------|---|------------------------|
| | ARDURADUNAK | NOIZ | ARDURADUNAK | NOIZ |
| FORMAKUNTZAK | IKT BATZORDEA | IRAILA-URRIA | IKT BATZORDEA | IRAILA-URRIA |
| DRIVE | KLAUSTRO OSOA | IRAILA | IRAKASLE BERRIAK | IRAILA |
| EINIKA | KLAUSTRO OSOA | URRIA | IRAKASLE BERRIAK | URRIA |
| BESTE BATZUK (bideotutorialak, publisher, blogger...) | KLAUSTRO OSOA | IKASTURTE OSOAN ZEHAR | KLAUSTRO OSOA | IKASTURTE OSOAN ZEHAR |
| BERRITZEGUNEKO FORMAKUNTZA | IKT ARDURADUNA 3. MAILAKO TUTORE BAT | URRITIK MAIATZERA | IKT ARDURADUNA 4. MAILAKO TUTOREA | URRITIK MAIATZERA |
| SEKUENTZIA DIDAKTIKOAREN PRESTAKUNTZA | IKT ARDURADUNA 2. ZIKLOKO IRAKASLEAK | URRIA AZAROA ABENDUA | | |
| SEKUENTZIA DIDAKTIKOA AURRERA ERAMATEA | | | IKT ARDURADUNA 4. MAILAKO IRAKASLEA | BIGARREN HIRUHILEKOAN |
| PROIEKTUAN EMANDAKO PAUSUEN EBALUAZIOA, BALORAZIOA | IKT ARDURADUNA 2. ZIKLOKO IRAKASLEAK | SEKUENTZIAREN AMAIERAN | IKT ARDURADUNA 4. MAILAKO IRAKASLEAK | SEKUENTZIAREN AMAIERAN |
| MEMORIA | IKT ARDURADUNA 3. MAILAKO IRAKASLEAK (2. zikloko irakasleen onarpenarekin) | SEKUENTZIAREN AMAIERAN | IKT ARDURADUNA 4. MAILAKO IRAKASLEAK | SEKUENTZIAREN AMAIERAN |

D) Zehaztapena, koordinaziorako prozeduraren garapena, proiektuaren jarraipena eta emaitzen ebaluazioa

ZEHAZTAPENA: Proiektuan 3. mailako tutoreek parte hartuko dute. Landuko ditugun arloak honako hauek dira: euskara, gaztelera, natur zientziak gizarte zientziak, plastika eta ikt-ak

- Lehenengo ikasturtean proiektuan murgildu, irakasleon eta ikasleen formakuntza (drive, web quest...), materialen prestaketa...

- Bigarren ikasturtean proiektuaren ezarpenari ekingo diogu.

Gure ikastetxean proiektuak lan egiten dugu beraz, natur zientzia edo gizarte zientzien inguruko proiektu batean euskara, gaztelera, plastika eta ikt-ak txertatuko ditugu, hau da, ikuspegi globalizatzaile bat erabiliko dugu. Horretaz gain, ikastetxean aurrera daramazkigun beste bi proiektu ere bertan txertatuko ditugu: Bikoteka irakurtzen eta IKKI proiektua.

- Proiektu honen bidez curriculumeko helburuak lortzeaz gain, honako helburuak ere baditugu:
 - Bai ikasle eta baita irakasleok Teknologia Berrietan janztea.
 - Gelako lanak sortzeko hainbat tresna eta euskarri digital erabiltzea.
 - Gure domeinuak eskaintzen dizkigun tresnen erabilera sustatzea: korreoa, drive, blogak...
 - Interneta informazio iturri bezala erabiltzen ikastea: bilaketa, hautaketa eta eraldaketa.
 - Landutako informazioa euskarri desberdinetan aurkeztea: Prezi, Power Point, mapa kontzeptualak...
 - Drive-n bidez talde lana bultzatzea.
 - Soinu eta irudien grabaketan aurreneko pausoak ematea (Movie Maker, Audacity...)

Irailaren hasieran oinarrizko formakuntza eskainiko da: gmail eta drive-n oinarrizko erabilera eta baita inikakoa. Ikasturtean zehar oinarrizko formakuntza honen sakontzeari ekingo diogu.

Proiektua prestatzeko eta proiektua aurrera eramateko astero ordu eta erdiko bilera bat egingo da.

Guzti honekin gure ikasleen ikaskuntza esanguratsua eta gaurkotua bultzatu nahi dugu:

- Teknologia berriak erabiliko ditugu aurre-ezagutzak landu eta ezagutza berriekin harramantzako testu, galdeketak, bideoak, irudiak, Power Pointak...
- Lana egiteko modu aktibo bat bultzatu nahi dugu eta horretarako gaur egungo gizarteak ezinbestekoak dituzten tresnak erabiliko dituzte.
- Motibazioa piztea, hain gogoko dituzten, errekurtso digitalak erabiliaz.
- Lehen aipatu dugun bezala Ikasketa Kooperatiboa dugu gure metodologiaren oinarrietako bat eta teknologia berriak horretarako aukera zabala eskaintzen digu: bloga, google apps, korreoa...

KOORDINAZIORAKO PROZEDURAREN GARAPENA , PROIEKTUAREN GARAPENA , JARRAIPENA ETA EMAITZEN EBALUAZIOA:

- Lehenengo ikasturtean asteazkeneko ordu eta erdiz elkartuko gara, proiektuan parte hartzen dugun irakasle guztiak eta ikasketa burua, proiektuaren nondik norakoak jakin arazteko, proiektuaren zehaztapenetara iristeko, erabiliko ditugun IKT baliabideen formakuntza (drive, web quest, arbel digitala, kainoia...) aurrera eramateko eta materialen prestaketarako.

- Bigarren ikasturtean proiektuaren ezarpenari ekingo diogunez, astean gutxienez ordu eta erdiz bilduko gara. Lehenengo hiruhilekoan azken prestaketa lanak egiteko. Bigarren hiruhilekoan proiektua martxan jarriko dugu. Bileretan proiektua aurrera ateratzeko asteko plangintza osatu eta aurreko astean egindakoaren hausnarketa egingo dugu: ondo egindakoak, zailtasunak eta hobetu beharrekoak jasoko ditugu. Azkenik, hirugarren hiruhilekoan proiektu osoaren ebaluazioa egingo dugu, astero jasotako hobekuntza proposamenak kontutan izanik, proiektua behin betiko osatuko dugu. Proiektu hau gure Curriculumean bigarren zikloan landu beharreko proiektu bat bezala ezarriko da.
- Ebaluaketarako irizpideak:
 - Ea proiektuaren plangintza, baliabideak eta denboralizazioa egokiak izan diren.
 - Ea irakasleek egindako formakuntza baliagarria izan den.
 - Ea egindako proposamen didaktikoak praktikan jarri diren eta eraginkorrak izan diren.
 - Ea aukeratutako baliabide digitalak aproposak izan diren.
 - Ea teknologia berrien presentzia ikastetxean areagotu den.
 - Ea ikasleak gogotsu aritu diren eta interesa azaldu duten.
 - Ea ezagupenetan aurrera egin duten.
 - Ea ikasitakoa azaltzeko gai diren.
 - Ea erabilitako baliabide digitalak autonomiaz erabiltzeko gai diren.
- Ebaluaketa egiteko honako hauetan oinarrituko gara:
 - Irakasleen koordinazio bileretan jasotako aktak.
 - Behaketetarako txantiloak.
 - Irakasleen autoebaluaketa eta koebaluaketa errubrikak.

E) Lehenik izandako esperientzia berritzaileak, hezkuntza digitalaren proiektuetan.

Arantzazuko Ama ikastolaren azken urteetako helburuetako bat IKT arloan zenbait helburu lortzea izan da.

- Ohiko ikasgelak ikasgela digitalak bilakatzea.
- Irakasleak IKT-dun gaitasunetan trebatzea.
- Ikasgeletako metodologia aldaketari laguntzea, ikt baliabideak erabiliaz.

Hau lortzeko asmotan zenbait lankidetzak proiektu telematikotan hartu dugu parte. Lankidetzak-diziplinarteko proiektu telematikoek irakasle-ikasteko eredu sozio-konstruktibistarekin bat egin nahi dute eta euren oinarria lan proiektuen sisteman datza. Egun, internetek eta IKTak berriazko indarra ematen die proiektu horiei eskola mundura zabalduz eta informazioaren itsasoan murgilduz.

Guk parte hartu dugun proiektuak ondorengo hauek izan dira:

- **Pelutxe proiektua**
- **Gipuzkoan zehar**
- **Asmakilo**

Hauetaz gain, LH 3. zikloko ikasleek eguneroko jardunean minieramangarriak eta arbel digitala erabiltzen dute. Besteak beste irakaslearekin korreo digitala eta lan kolaboratiboa egiteko drive erabiltzen dute.

Beste ikastetxe batzuekin ere elkar trukaketak egin ditugu urteetan zehar, aurrelan guztia lkt baldiabide desberdinekin egin dugularik. (Kataluña-Zaragoza)
Korreo - Chat a - Bideo konferentziak - Bloga - Hangouts - Google + argazkiak...

F) Hezkuntza taldeak edo ildoak, emandako ikasgaiak eta proiektuan parte hartuko duten irakasleak.

Ikastetxearen proposamena L.H. 3. mailetako talde guztiak aipatutako ikasgai desberdinetan, baliabide digitalak erabiltzea da.

Honetarako beste ikastetxeetako esperientziak eta materialak aztertuko ditugu abiapuntu bezala, eta ikasturtea aurrera joan ahala gure material propioa sortuko dugu.

On-line lan egiteak ematen duen aukeragatik, ikasleen jarraipena pertsonalizatuagoa da, zeren gai berbera lantzean erritmo desberdinak egon arren irakasleak honen berri du, eta erantzuna pertsonala da.

Guzti hau gauzatzeko gure e-gela hornituko dugu falta diren ordenagailuekin. Gela honetan arbel digitala ere badugu.

Irakasleen arteko lan egiteko era digitala izango da, bai komunikazio momentuan zein materiala partekatzeko momentuan.

G) Hezkuntza komunitatean proiektua zabaltzeko eta familien parte hartzea sustatzeko aurreikusitako neurriak.

Proiektua zabaltzeko bide desberdinak erabiliko ditugu:

- **Klaustroarekin:** Hasieran, klaustroari proiektuaren nondik norakoak jakin arazi dizkiogu. Ikasturtean zehar erabiliko dugun metodologia zein izango den, erabiliko ditugun errekurtsoak, ebaluazio irizpideak zeintzuk izango diren berri eman diegu. Hau honela klaustroak proiektua berretsi du.
- **Proiektua aurrera doan neurrian,** klaustroetan gutxienez hiruhilekoan behin egiten ari garenaren azalpena egingo dugu. Gure asmoa, irakasleengan interesa sustatzea da. Modu horretan, proiektuan inplikatuak ez daudenekiko irrika sortuaz. Sortutako materialak ikusi ahal izango dituzte Drive-n zintzilikatuko dugun karpetan.
- **Familiekin:** Proiektuan onartuak izan bezain pronto OOG-an egingo dugu proiektuaren aurkezpena. Bestalde, ikasturte hasieran 3. mailan egingo diren gela bileretan gurasoak informatuko ditugu Bileren horretan, ondoren webean

zintzilikatuko dugun, euskarri informatikoan (prezi) prestatutako aurkezpen batez baliatuko gara .Modu honetan ondoren bertan azalduko berrikusteko aukera izango dute. Gurasoen konplizitatea bilatuko dugu eta horretarako zertan lagundu dezaketen eta nola esango diegu: informazioa bilatu, informazioa / bideoak/ argazkiak autatu, jardueraren bat osatu, gelan aurkezpen bat egitera animatuko ditugu... Horretaz gain, beharrezkoa ikusten dugunetan emailez mantenduko dugu komunikazioa.

- Ikasturte bukaeran bai OOGan, parte hartzen duten taldeetako gurasoei eta baita Klaustroan ere egindako lana, emaitzak, balorazioa, hobetu beharrekoak, hurrengo ikasturteari begira egingo diren hobespenak ... azalduko ditugu.

H) Parte hartzeko proiektuaren edukiak beste talde edo irakasle batzuei transferitzeko aurreikuspena.

Proiektuaren orokortasuna lortzeko, kurtsoz kurtso ikt ko baliabide desberdinen bitartez arlo desberdinetan landutako unitate didaktiko kopuruen gehitzearekin hasiko ginateke. Ondoren, progresiboki maila desberdinetara, proiektuan hasieratik hasi ez diren beste mailletara zabaltzea izango da helburu.

Dena dela proiektu honen hedapena ikastetxeko irakaslegoaren egonkortasunari , beraien formakuntzari eta daukaten gogoei zuzenki lotuta egongo da.

Irakasleak proiektuan barneratzeko arrakastaren klabeak, ondorengo hauek izango dira:

- Ikastetxean irakasle talde bat (ikastetxean egonkortasuna duena) hautatuko da lan taldeak sortzeko, gero eta autonomia eta espezializazio gehiago izango duena.
- Ziklo, irakasle talde bileretan... autoformazioa ezartzea (tutorialak) horrela beranduago hasten diren irakasleei lagundu ahal izateko.
- Ikastetxeko formakuntza proiektuak diseinatu, sor daitezkeen beharrei erantzun ahal izateko.
- Benetako lan, talde dinamikak sortu, indarrak elkartu, emaitza hobeak lortu ahal izateko.
- Ikastetxearen berraldaketa egin lan metodologikoen garapena erraztu ahal izateko: aniztasunari erantzuteko ikuspegia aldatu, material kurrikularren aukeraketa eta sorkuntza aldatu, berdinen arteko tutoretza bueltatu.
- Ikastetxean ditugun errekurtso digitalen optimizazioa lortu, orain arte hornikuntza digitalik izan ez duten zikloetan ikt-en presentzia ugaritzeko. Horretarako, proiektua parte hartzen duten ikasleek ordutegi berezia izango dute E gelan eta 5. eta 6. mailetakoko minieramangarriak erabili ahal izateko, ordutegi bat osatuko dugu.

I) Beste eragile edo ikastetxeei "Sare hezkuntza Gelan" esperientziatik eratorritako ezaguerak transferitzeko edo prestakuntza emateko aurreikuspena.

Prest gaude berritzeguneko mintegietan, egindako lanari buruzko azalpenak emateko.

Gure esperientziak beste ikastetxe batzuekin partekatzea guztiz onuragarria litzaziguke: alde onak eta ez hain onak, esperientzia bera, metodologia, aldatu behar diren aspektuak edo mantentzeko komenigarriak direnak, ... Ideia berriak jaso eta aldi berean, gure esperientzia beste ikastetxe batzuetan azaltzeko prest gaude, esperientzia berritzaile hauetan ikasten dena besteekin partekatzeko nahian

J) Zelan justifikatzen eta banakatzen den aurkeztutako aurrekontua

Sare hezkuntzako proiektua aurrera eraman ahal izateko, koaderno digitala abian jarriko dugu, bertan Unitate Didaktikoak txertatzeko eta saio guztiak digitalizatuak eduki ahal izateko. Datorren ikasturteetan etorri daitezkeen irakasle berriek berain eskura Unitate Didaktikoak eduki ditzaten aurrez hasitako proiektua orokortzen joateko. Honetarako zenbait prestakuntza saio beharrezkoak ikusten ditugu.

| AURREKONTUEN LABURPENA | |
|-------------------------------|-------|
| <u>Aholkularitza</u> | 2000€ |
| <u>Lizentziak</u> | 800€ |
| <u>Beste batzuk</u> | 1500€ |

